

Alberto Itoiz zeharkako txirula ikasten hasi zen bere herriko (Zangoza) "Juan Francés de Iribarren" musika eskolan, eta bukatu, berriz, Iruñeko "Pablo Sarasate" goi mailako musika kontserbatorioan. Nabarmendu behar dira Hendaian eta Parisen egin dituen ikastaroak.

Hainbat talderekin lan egin du, hala nola, "Pablo Sarasate" izeneko bai Haize Instrumentuen Orkestra, bai Gazte Orkestra Sinfonikoa baita Orkestra ere, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Errioxako Orkestra Sinfonikoa, Iruñako "Sinfonietta" Orkestra, Errioxako Nazioarteko Piano Lehiaketako Orkestra, Zumaiako "Sapere Aude Sinfonietta", Miranda de Ebroko Orkestra, Arrasateko Orkestra, Castilla La Mancha Orkestra, "La Pamplonesa" Banda, Calahorrako Banda, Eibarko Banda eta bestelakoekin, baita ganbera musikako zenbait talderekin ere. Grabaketak eta birak egin ditu Espainian eta Italian zehar eta kontzertuak eman, bakarlari gisa.

Hobekuntza ikastaroak eta master-class direlakoak egin ditu zenbait nazioarte mailako txirula jotzaile ezagunekin: Susan Milan, Antonio Arias, Pierre Wavre, Jaime Martín, Mihi Kim, Hervé Hotier, Wilbert Hazelzet, P. I. Artaud, Magdalena Martínez, Xavier Relats, Bruno Claverie, Horacio Parravicini, Antonio Nuez, Nicole Esposito, Ricardo Gianni, etab...

Irakasle aritu da Errioxan, Nafarroan, Araban eta Gipuzkoan. Zeharkako txirulako ikastaroak eman ohi ditu.

2003tik Gasteizko Udal Musika Bandako txirula jotzaileetako bat da, 2008an oposizio-lehiaketa irabazi zuelarik.

Muramatsu txirularekin jotzen du.

<https://www.albertoitoiz.com>

